



2004ko azaroak 11 osteguna  
217 Zenbakia

Jueves 11 de noviembre de 2004  
Número 217

## LABURPENA — SUMARIO

	<i>Orrialdea</i>		<i>Página</i>	
<b>[3]</b>	Gipuzkoako Lurralde Historikoko Xedapen Orokorrak,	21.153	<b>[3]</b> Disposiciones Generales del T.H. de Gipuzkoa.....	21.153
<b>[4]</b>	Gipuzkoako Lurralde Historikoko Administrazioa.....	21.161	<b>[4]</b> Administración del T.H. de Gipuzkoa.....	21.161
<b>[5]</b>	Estatuko Administrazioa .....	21.184	<b>[5]</b> Administración del Estado .....	21.184
<b>[6]</b>	Autonomia Erkidegoko Administrazioa .....	21.186	<b>[6]</b> Administración de la Comunidad Autónoma .....	21.186
<b>[7]</b>	Udal Administrazioa .....	21.190	<b>[7]</b> Administración Municipal .....	21.190
<b>[9]</b>	Iragarkiak .....	21.258	<b>[9]</b> Anuncios.....	21.258

**3**

## GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTORICO DE GIPUZKOA

**3**

### GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Azaroaren 2ko 87/2004 FORU DEKRETUA, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimen eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriak aplikatzeko erregelamendua onartzen duena.

Apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimen eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzkoak, erregulatzen duen zerga erregimen berrian ezarrita geratu zen zein beharkizun bete behar diren erregimen berezia aplikatu ahal izateko, eta partikularrek nahiz enpresek egindako mezenasgo jarduerari aplikagarri zaizkion pizgarriak ere finkatu ziren.

Aipatutako foru arauan jasotzen diren lege-xedapenek erregelamenduzko garapenera igortzen gaituzte hainbat arlotan, eta zehazki esanda, bai entitateen beraien zerga erregimen eta buruzkoan eta bai mezenasgo jarduerei aplikatu beharreko zerga erregimenari dagokionean.

Erregelamendu honek bost kapitulu eta bederatzi artikulu ditu, bai eta bi xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta amaierako xedapen bat ere.

### DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

DECRETO FORAL 87/2004, de 2 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento para la aplicación del régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos al mecenazgo.

El nuevo régimen fiscal regulado en la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, contiene los requisitos para acogerse a la aplicación del régimen especial y fija el conjunto de incentivos que son aplicables a la actividad de mecenazgo realizada por particulares y empresas.

La regulación legal contenida en la citada Norma Foral realiza remisiones al desarrollo reglamentario en diversos aspectos, en concreto, tanto respecto del régimen fiscal de las propias entidades, como respecto del régimen fiscal aplicable a las actividades de mecenazgo.

El presente Reglamento consta de cinco capítulos, con nueve artículos, así como de dos disposiciones adicionales, una disposición transitoria, una disposición derogatoria y una disposición final.

Lehenengo kapituluan arautzen da zein prozedura jarraituko den foru arauan ezarritako beharkizunak betetzen dituzten irabazi asmorik gabeko entitateek zerga erregimen berezia aplika dezaten. Era berean, beste bi gai arautzen dira: Batetik, entitate horiek prestatu behar duten memoria ekonomikoaren beharkizunak eta, bestetik, tributatzen ez duten errenten gainean atxikitzeo edo kontura sartzeko obligaziotik salbuesten duen eskubidearen egiaztapena.

Bigarren kapituluan Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboek eta Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergaren nahiz Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek emaitza, dohaintza eta ekarpenean kengariak frogatzeko jarraitu behar duten prozedura arautzen da. Bereziki, irabazi asmorik gabeko entitateek 3/2004 Foru Arauaren III. tituluan mezenasgoaren alde aurreikusten diren zerga-pizgarrien onuradun direnean emaitzak eta ekarpeneak jasotzeagatik aurkeztu behar duten aitorpen informatiboa finkatzen da.

Hirugarren kapituluan, bere aldetik, beharrezko prozedurak ezartzen dira zuzeneko zenbatespenaren metodora bilduta dauzen enpresari eta profesionalek, pertsona juridiko zein fisikoek, interes orokorreko jardueretara bideratutako kopuruengatik bidezko kenkariak aplika ditzaten.

Laugarren kapituluak lehentasunezko mezenasgo-jardueretarako ezarritako prozedura jasotzen du.

Azkenik, bosgarren kapituluan aparteko interes publikoa duten gertakariei laguntzeko programetan aurreikusi diren zerga onurak aplikatu eta aitortzeko prozedura jasotzen da labur-labur.

Beren aldetik, xedapen gehigarriek bi helburu dituzte: Batetik, beharrezko zehaztapen teknikoak sartzea zerga erregimen berezia erlijio entitateetara egokitzeko nazioarte mailako eta lankidetza arloko akordioetan nahiz horiek garatzen dituen araudian ezarritakoari jarraiki eta, bestetik, irabazi asmorik gabeko entitate onuradunek emaitzak, dohaintzak eta ekarpeneak jasotzeagatik aurkeztu behar duten aitorpen informatiboa zehaztea.

Amaitzeko, xedapen iragankor bakarrak itzulketarako eskuidea ezartzen du erregimen berezia aplika dezaketen subjektu pasiboek ordaindutako udal kuotei dagokienez. Xedapen indargabetzaileak dio foru dekretu honetan ezarritakoarekin bat ez datozen xedapen guztiak indarrik gabe geratzen direla; eta, azkenik, amaierako xedapenak dekretu hau zein egunetan sartuko den indarrean finkatzen du, hau da, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean.

Horiek horrela, Fiskalitaterako eta Finantzetarako foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzaritza Batzordeari behin entzunda, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau,

XEDATU DUT

## I. KAPITULUA

### IRABAZI ASMORIK GABEKO ENTITATEEN ZERGA ERREGIMEN BEREZIA APLIKATZEKO PROZEDURA, MEMORIA EKONOMIKOA, ETA ATXIKITZEKO ETA KONTURA SARTZEKO OBLIGAZIOTIK SALBUESTEN DUEÑ ESKUBIDEAREN EGIAZTAPENA

*1. artikulua. Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimen berezia aplikatzearen aldeko aukera.*

1. Apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzkoak, II. tituluan jasotzen duen zerga

El primero de los capítulos halla su objeto en la regulación del procedimiento previsto para la aplicación del régimen fiscal especial por las entidades sin fines lucrativos que cumplen los requisitos previstos en la Norma Foral, de los requisitos de la memoria económica que han de elaborar dichas entidades y de la acreditación a efectos de la exclusión de la obligación de retener o ingresar a cuenta sobre las rentas que están exentas de tributación.

El segundo capítulo está dedicado a la regulación del procedimiento para la justificación de los donativos, donaciones y aportaciones deducibles por los sujetos pasivos del Impuesto sobre Sociedades y contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, en particular, da forma a la declaración informativa que sobre las certificaciones emitidas de los donativos y aportaciones percibidos han de presentar las entidades sin fines lucrativos beneficiarias de los incentivos fiscales al mecenazgo regulados en el título III de la Norma Foral 3/2004.

Por su parte, el tercer capítulo se refiere a los procedimientos necesarios para la deducibilidad por empresarios y profesionales, personas jurídicas y personas físicas acogidas al método de estimación directa, de las cantidades destinadas a la realización de actividades de interés general.

El cuarto capítulo se refiere al procedimiento establecido para las actividades prioritarias de mecenazgo

Y, finalmente, el quinto capítulo se refiere brevemente al procedimiento para la aplicación y reconocimiento de los beneficios fiscales previstos en los programas de apoyo a acontecimientos de excepcional interés público.

Por su parte, las disposiciones adicionales introducen, por un lado, las precisiones necesarias para la adecuación del régimen fiscal especial a las entidades religiosas de acuerdo con lo establecido en los acuerdos internacionales y de cooperación correspondientes, así como en su normativa de desarrollo, y por otro, la declaración informativa que han de presentar las entidades sin fines lucrativas beneficiarias de los donativos, donaciones y aportaciones percibidos.

Por último, la disposición transitoria única establece el derecho a devolución de los tributos locales satisfechos por los sujetos pasivos que tengan derecho a la aplicación del régimen especial, la disposición derogatoria contiene la referencia a la derogación de todas las disposiciones que se opongan a lo establecido en este Decreto Foral y la disposición final dispone la entrada en vigor, que será el siguiente a la publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral titular del Departamento para la Fiscalidad y las Finanzas, oída la Comisión Jurídica Asesora y previa deliberación y aprobación del Consejo de Diputados en sesión del dia de la fecha,

DISPONGO

## CAPITULO I

### PROCEDIMIENTO PARA LA APLICACION DEL REGIMEN FISCAL ESPECIAL DE LAS ENTIDADES SIN FINES LUCRATIVOS, MEMORIA ECONOMICA Y ACREDITACION DEL DERECHO A LA EXCLUSION DE LA OBLIGACION DE RETENER E INGRESAR A CUENTA

*Artículo 1. Opción por la aplicación del régimen fiscal especial de las entidades sin fines lucrativos.*

1. Para la aplicación del régimen fiscal especial previsto en el Título II de la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fis-

erregimen berezia aplikatu nahi duten entitateek Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuari jakinarazi behar diote erre-gimen hori aukeratzen dutela.

2. Zerga erregimen berezia aukera adierazten den komunikazioa aurkeztu ondoren amaitzen den zergaldian eta hurrengo guztietaan aplikatuko da, beti ere entitateak erregime-nari uko egiten ez dion bitartean.

Erregimenari uko egiten bazaio, uko aurkeztu eta hurrengo zergaldian sortuko ditu ondorioak. Uko-eskaera zergaldi hori hasi baino gutxienez hilabete bat lehenago aurkeztu beharko da Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuari egingo zaion komunikazioa dela medio.

3. Zergaldirik ez duten zergei dagokienez, zerga erregi-men berezia aurreko apartatuko lehen paragrafoan aipatutako zergaldietan gertatzen diren egitate ezargarriei aplikatuko zaie, eta ukoak apartatu horretako bigarren paragrafoan aipatutako zergaldia behin hasitakoan gertatzen diren egitate ezargarrietan izango ditu ondorioak.

4. Zerga erregimen berezia zergaldi bakoitzean aplika-tzeko, ezinbestekoa izango da 3/2004 Foru Arauak 5. artikuluan ezartzen dituen baldintzak eta beharkizunak horietan guztietaan betetzea.

#### *2. artikulua. Zerga erregimen berezia udal zergen ondo-rioetarako aplikatzea.*

1. 3/2004 Foru Arauak 17. artikuluaren 4 apartatuan xeda-tutakoaren ondorioetarako, irabazi asmorik gabeko entitateek jakinarazi egin beharko dute foru dekretu honen 1. artikuluan araututako erregimena aukeratzen dutela edo aukera horri uko egiten diotela.

2. Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren sal-buespenari dagokionez, 1 apartatuan aipatutako komunikazioa dena delako ondasun higiezina kokaturik dagoen herriko uda-vari zuzenduko zaio.

3. Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren eta Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergaren salbuespenari dagokionez, 1 apartatuan aipatzen den komunikazioa haien kudeatzen dituen zerga Administrazio eskudunari, dagokion udalari edo Gipuzkoako Foru Aldundiko Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuari zuzenduko zaio.

Zerga horiek Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuak zuzenean kudeatzen baditu, esandako komunikazioa egindakotzat joko da foru dekretu honen 1. artikuluan aipatzen den komunikazioa aurkezten denean.

4. Aurreko 1. artikuluan ezarritakoaren arabera udal zergen ordainketan zerga crregimcn berezia aplikatzcko cskubidca duten subjektu pasiboek zerga horiei dagozkien zorrak ordain-duak badituzte, ordaindutako kopuruak berreskuratzeko eskubi-dea izango dute.

#### *3. artikulua. Memoria ekonomikoa.*

1. Irabazi asmorik gabeko entitateek 3/2004 Foru Arauaren 5. artikuluan ezarritakoa betez prestatu behar duten memoria ekonomikoan ondoko informazioa jasoko da:

a) Sozietaeten gaineko Zergatik salbuetsitako eta salbue-tsii gabeo errentak identifikatuko dira, 3/2004 Foru Arauaren 8. eta 9. artikuluetan zein zenbakik eta, kasua bada, zein letra-k

cales al mecenazgo, la entidad deberá comunicar al Departamento para la Fiscalidad y las Finanzas su opción por dicho régimen.

2. El régimen fiscal especial se aplicará al periodo impositivo que finalice con posterioridad a la fecha de presentación de la comunicación en que se contenga la opción y a los sucesivos, en tanto que la entidad no renuncie al régimen.

La renuncia producirá efectos a partir del periodo impositivo que se inicie con posterioridad a su presentación, que deberá efectuarse con al menos un mes de antelación al inicio de aquél mediante comunicación al Departamento para la Fiscalidad y las Finanzas.

3. En relación con los impuestos que no tienen periodo impositivo, el régimen fiscal especial se aplicará a los hechos imponibles producidos durante los períodos impositivos a que se refiere el primer párrafo del apartado anterior y la renuncia surtirá efectos respecto a los hechos imponibles producidos a partir del inicio del período impositivo a que se refiere el segundo párrafo del citado apartado.

4. La aplicación del régimen especial quedará condicio-nada, para cada período impositivo, al cumplimiento, durante cada uno de ellos, de las condiciones y requisitos previstos en el artículo 5 de la Norma Foral 3/2004.

#### *Artículo 2. Aplicación del régimen fiscal especial a efec-tos de los tributos locales.*

1. A efectos de lo dispuesto en el apartado 4 del artículo 17 de la Norma Foral 3/2004, las entidades sin fines lucrativos deberán comunicar el ejercicio de la opción regulada en el artí-culo 1 de este Decreto Foral o la renuncia a ésta.

2. En relación con la exención en el Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana, la comunicación a que se refiere el apartado 1 deberá dirigirse al ayuntamiento competente por razón de la localización del bien inmueble de que se trate.

3. En relación con la exención en el Impuesto sobre Bienes Inmuebles y en el Impuesto sobre Actividades Económicas, la comunicación a que se refiere el apartado 1 deberá dirigirse a la Administración Tributaria competente para su gestión, ayunta-miento correspondiente o Departamento para la Fiscalidad y las Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En el caso de que la gestión de estos impuestos sea llevada directamente por el Departamento para la Fiscalidad y las Finanzas la comunicación se entenderá realizada con la presen-tación de la comunicación a que se refiere el artículo 1 de este Decreto Foral.

4. Los sujetos pasivos que, teniendo derecho a la aplica-ción del régimen fiscal especial en relación con los tributos locales, de acuerdo con lo previsto en el artículo 1 anterior, hubieran satisfecho las deudas correspondientes a éstos tendrán derecho a la devolución de las cantidades ingresadas.

#### *Artículo 3. Memoria económica.*

1. La memoria económica que, en cumplimiento de lo establecido en el artículo 5 de la Norma Foral 3/2004, deban elaborar las entidades sin fines lucrativos, contendrá la siguiente información:

a) Identificación de las rentas exentas y no exentas del Impuesto sobre Sociedades señalando el correspondiente número y, en su caso, la letra, de los artículos 8 y 9 de la Norma Foral

babesten duen salbuespena adieraziz eta bakoitzaren sarrerak eta gastuak zehatzuz. Halaber, gastuak entitateak lortutako errenten artean banatzeko egindako kalkuluak eta erabilitako irizpideak zehatzuko dira.

b) Entitateak bere estatutuetako helburuak edo bere xedea betetzeko egindako proiektu edo jarduera bakoitzari dagozkion sarrera, gastu eta ibertsioak identifikatuko dira. Proiektu bakoitzeko gastuak kategoriatan sailkatuko dira, besteak beste, langileen gastuak, kanpoko zerbitzuen gastuak edo material erosketak bereiziz.

c) 3/2004 Foru Arauak 5.1 artikuluan aipatzen dituen errentak eta sarrerak zehatzuko dira, nola kalkulatu diren azaldu, eta zertarako erabili diren adierazi.

d) Entitateak bere patronoei, ordezkariei edo gobernu organoko kideei euren eginkizuna betetzean izandako gastuentzatik nahiz entitateari berezko eginkizunetatik kanpo eskainitako zerbitzuengatik ordainsari gisa emandako diruzko zein gauzazko ordainketak.

e) Entitateak merkataritza sozietateetan dituen partaide-tza-portzentajeak, datu hauek ere emanet: Entitatearen identifikazioa, sozietate izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

f) Partaide den merkataritza sozietateetan entitatea ordezkatzen duten administratzaileek jasotako ordainsariak, itzuli diren kopuruak ere adierazziz.

g) Entitateak interes orokorreko jarduerak egiteko beste enpresa batzuekin sinatutako lankidetza hitzarmenak, horietan parte hartzen duen pertsona identifikatuz eta jasotako kopuruak adieraziz.

h) Adierazi beharko da zer dioten estatutuek entitatea desegiten denean bere ondareari emango zaion erabilerari buruz, eta entitatea ekitaldian desegin bada, zertarako erabili den ondare hori.

2. Memoria ekonomikoa Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko Zuzeneko Zergen Zerbitzuan aurkeztuko da Sozietateen gaineko Zergaren aitorpen-likidazioarekin batera.

Hala ere, entitateek zergaldian izan duten sarrera-bolumen osoa 30.000 eurokoa baino handiagoa ez denean eta merkataritza sozietateetan partaidezarik ez dutenean, ez dute memoria ekonomikorik aurkeztu beharko. Horrek, dena den, ez du eragotziko entitateek memoria ekonomikoa egin behar izatea.

3. Kontabilitateari buruzko araudiaren arabera memoria urtero egin behar duten entitateek 1 apartatuan aipatutako informazioa memoria horretan sartuz bete ahal izango dute artikulu honetan xedatutakoa.

Horrelako kasuetan, eta 3/2004 Foru Arauan memoria ekonomikoaz xedatutakoa betetzeko soilik, memoria aurkezteko tokia eta epea eta Zerga Administrazioari aurkezteko obligazio-rik salbuesteko kasuak 2 apartatuan ezarritakoak izango dira.

*4. artikulua. Irabazi asmorik gabeko entitateek jasotako errenta salbuetsiengatik atxikitzeko edo kontura sartzeko obligazioen salbuespena egiaztatzea.*

Atxikitzeko edo kontura satzeko obligazioaren salbuespena, 3/2004 Foru Arauaren 14. artikuluan aipatua, irabazi asmorik gabeko entitateei aplikagarri zaiela egiazatzeko, Fiskalitaterako

3/2004 que ampare la exención con indicación de los ingresos y gastos de cada una de ellas. También deberán indicarse los cálculos y criterios utilizados para determinar la distribución de los gastos entre las distintas rentas obtenidas por la entidad.

b) Identificación de los ingresos, gastos e inversiones correspondientes a cada proyecto o actividad realizado por la entidad para el cumplimiento de sus fines estatutarios o de su objeto. Los gastos de cada proyecto se clasificarán por categorías, tales como gastos de personal, gastos por servicios exteriores o compras de material.

c) Especificación y forma de cálculo de las rentas e ingresos a que se refiere el artículo 5.1.º de la Norma Foral 3/2004, así como descripción del destino o de la aplicación dado a las mismas.

d) Retribuciones, dinerarias o en especie, satisfechas por la entidad a sus patronos, representantes o miembros del órgano de gobierno, tanto en concepto de reembolso por los gastos que les haya ocasionado el desempeño de su función, como en concepto de remuneración por los servicios prestados a la entidad distintos de los propios de sus funciones.

e) Porcentaje de participación que posea la entidad en sociedades mercantiles, incluyendo la identificación de la entidad, su denominación social y su número de identificación fiscal.

f) Retribuciones percibidas por los administradores que representen a la entidad en las sociedades mercantiles en que participe, con indicación de las cantidades que hayan sido objeto de reintegro.

g) Convenios de colaboración empresarial en actividades de interés general suscritos por la entidad, identificando al colaborador que participe en ellos con indicación de las cantidades recibidas.

h) Indicación de la previsión estatutaria relativa al destino del patrimonio de la entidad en caso de disolución y, en el caso de que la disolución haya tenido lugar en el ejercicio, del destino dado a dicho patrimonio.

2. La memoria económica deberá presentarse ante el Servicio de Impuestos Directos del Departamento para la Fiscalidad y las Finanzas junto con la declaración-liquidación del Impuesto sobre Sociedades.

No obstante, las entidades cuyo volumen total de ingresos del período impositivo no supere los 30.000 euros y no participen en sociedades mercantiles no vendrán obligadas a la presentación de la memoria económica, sin perjuicio de la obligación de estas entidades de elaborar dicha memoria económica.

3. Las entidades que, en virtud de su normativa contable, estén obligadas a la elaboración anual de la memoria podrán cumplir lo dispuesto en este artículo mediante la inclusión en dicha memoria de la información a que se refiere el apartado 1.

En estos casos, a los únicos efectos del cumplimiento de lo dispuesto en la Norma Foral 3/2004 en relación con la memoria económica, el lugar y plazo de presentación, así como los supuestos de exclusión de la obligación de su presentación ante la Administración Tributaria, serán los establecidos en el apartado 2.

*Artículo 4. Acreditación a efectos de la exclusión de la obligación de retener o ingresar a cuenta respecto de las rentas exentas percibidas por las entidades sin fines lucrativos.*

La acreditación de las entidades sin fines de lucro a efectos de la exclusión de la obligación de retener o ingresar a cuenta a que se refiere el artículo 14 de la Norma Foral 3/2004 se efectuará

eta Finantzetarako Departamentuko organo eskudunak egindako ziurtagiria aurkcztu bcharako da. Ziurtagiri horretan adicraziko da entitateak honako honen berri eman diola zerga Administratzaori, alegia, aipatutako foru arauaren II. tituluan arautzen den zerga erregimen berezia aplikatzea aukeratu duela eta eregi-men horri ez diola uko egin.

Ziurtagiriak bere indarraldia adierazi beharko du, eta edozein kasutan, ematen denetik eskatzailearen zergaldia amaitu arteko iraupena izango du.

*5. artikulua. Irabazi asmorik gabeko entitateen ordezkari aritzeko izendatutako administratzaileen ordainsariak.*

3/2004 Foru Arauak 5.4 artikuluaren azken paragrafoan atxikitzeo obligaziori buruz aipatzen duen salbuespenaren ondorioetarako, ordaintzaileak egiazatu beharko du administratzaileen ordainsariak haien ordezkatzen duten irabazi asmorik gabeko entitateak jaso dituela.

## II. KAPITULUA

### MEZENASGOAREN ALDEKO ZERGA- PIZGARRIAK APLIKATZEKO PROZEDURA

*6. artikulua. Jasotako emaitzen, dohaintzen eta ekarpenen ziurtagiria.*

3/2004 Foru Arauaren 25. artikulan aipatzen den ziurtagiriak ondoko informazioa jaso beharko du:

- a) Emailearen eta entitate hartzalearen identifikazio fis-kaleko zenbakia eta identifikazio pertsonaleko datuak.
- b) Espresuki adieraziko da dohaintza hartu duen entitatea mezenasgoko entitate onuradunen artean dagoela 3/2004 Foru Arauan ezarritakoaren arabera.
- c) Dohaintzaren data eta zenbatekoa, dirutan egina bada.
- d) Dohaintza ez bada dirutan egin, ondasuna eman dela frogatzan duen agiri publikoa edo bestelako agiri kautoa.
- e) Entitateari egindako zerbitzuaren diruzko balioa frogatzan duen faktura.
- f) Dohaintza hartu duen entitateak, bere xede espezifika betetze aldera, zertarako erabiliko duen eman zaion objektua.
- g) Espresuki adieraziko da dohaintza ezeztaezina dela, dohaintzak ezeztatzeari buruzko aginduzko arau zibiletan eza-rritakoa eragotzi gabe.

## III. KAPITULUA

### INTERES OROKORREKO JARDUERETAN EGINDAKO GASTUAK KENTZEKO PROZEDURA

*7. artikulua. Interes orokorreko jarduera eta gertakarie-tan izandako gastuak.*

1. Apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak 27. artikulan xedatzen duenez, Sozietateen gaineko Zergaren oinarri ezargarria kalkulatzeko, eta zuzeneko zenbatespenaren erregimenean dauden enpresari eta profesionalen kasuan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarri ezargarria kalkulatzeko, enpresek interes orokorreko jarduerak egiteko erabilitako kopuruak gastu kengarritzat hartuko dira.

tuará mediante certificado expedido por el órgano competente del Departamento para la Fiscalidad y Finanzas, en el que conste que la entidad ha comunicado a la Administración Tributaria la opción por la aplicación del régimen fiscal especial regulado en el Título II de la mencionada Norma Foral y que no ha renunciado a éste.

Este certificado hará constar su período de vigencia, que se extenderá desde la fecha de su emisión hasta la finalización del período impositivo en curso del solicitante.

*Artículo 5. Retribuciones de los administradores nombrados en representación de las entidades sin fines lucrativos.*

A efectos de la exclusión de la obligación de retener a que se refiere el último párrafo del artículo 5.4.º de la Norma Foral 3/2004, corresponderá al pagador acreditar que las retribuciones de los administradores han sido percibidas por la entidad sin fines lucrativos a la que éstos representen.

## CAPITULO II

### PROCEDIMIENTO PARA LA APPLICACION DE LOS INCENTIVOS FISCALES AL MECENAZGO

*Artículo 6. Certificación de los donativos, donaciones y aportaciones recibidas.*

La certificación a la que se hace referencia en el artículo 25 de la Norma Foral 3/2004 deberá contener la siguiente información:

- a) El número de identificación fiscal y los datos de identificación personal del donante y de la entidad donataria.
- b) Mención expresa de que la entidad donataria se encuentra incluida entre las entidades beneficiarias de mecenazgo de acuerdo con lo establecido en la Norma Foral 3/2004.
- c) Fecha e importe del donativo cuando éste sea dinerario.
- d) Documento público u otro documento auténtico que acredite la entrega del bien donado cuando no se trate de donativos en dinero.
- e) Factura que acredite el valor dinerario de la prestación de servicios realizada a favor de la entidad.
- f) Destino que la entidad donataria dará al objeto donado en el cumplimiento de su finalidad específica.
- g) Mención expresa del carácter irrevocable de la donación, sin perjuicio de lo establecido en las normas imperativas civiles que regulan la revocación de donaciones.

## CAPITULO III

### PROCEDIMIENTO PARA LA DEDUCCION DE LOS GASTOS REALIZADOS EN ACTIVIDADES DE INTERES GENERAL

*Artículo 7. Gastos en actividades y acontecimientos de interés general.*

1. De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 27 de la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, a efectos de la determinación de la base imponible del Impuesto sobre Sociedades y, en el caso de empresarios y profesionales en régimen de estimación directa, de la base imponible del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, tendrán la consideración de partida deducible las cantidades empleadas por las empresas en la realización de actividades de interés general.

2. Kopuru horiek kenkaridunak izan daitezen, pertsona edo entitate interesatuek idatziz jakinarazi behar diote Fiskalitaterako eta Finantzeturako Departamentuari interes orokorreko jarduerak egin dituztela, gastuaren zenbatekoa adierazi, eta memoria batean xede horietara bideratu duten laguntza deskribatu eta justifikatu.

Komunikazioa gastuaren kenkaria aplikatzen den ekitaldia itxi baino lehen egingo da.

3. Gastua egitea ekarri duen jardueran lortutako sarrerak subjektu pasiboaren oinarri ezargarrian sartuko dira.

4. Aurreikusitako kenkariak bateraezinak izango dira, kontzeptu berberarentzat, jarduera horien ondorioz inbertsioari emandako zerga-pizgarriekin eta Sozietaeten gaineke Zergaren kuotan aplika daitezkeen hobariekin.

5. Administrazioaren aldez aurreko jarduketak ez du baztertuko zerga Administrazioaren organo eskudunek geroago egiaztatzea gastua egin dela eta esandako helburuetara benetan egokitu dela. Horretarako, gaian eskumena duen Administrazio Departamentuari txostena eskatu zaio.

#### IV. KAPITULUA

##### LEHENTASUNEZKO MEZENASGO JARDUERAK

*8. artikuluak. Lehentasunezkotzat jotzen diren jarduerak egiteari buruz informatzeko obligazioa.*

1. Pertsona fisikoek eta entitateek ekarpenak jaso baditzte Gipuzkoako Foru Aldundiak lehentasunezkotzat jo dituen jarduerak garatzeko, memoria bat bidali beharko diote egindako jarduera dela-eta eskudun den Departamentuari ekarpen horien kontura ekitaldian finantzatutako jarduerei buruz. Memoria hori ekitaldia amaitu ondorengo bi hilabeteen barruan aurkeztu beharko da. Epe berean ere, jasotako ekarpenen zerrenda bidali beharko diote ekarpenak zenbatekoak diren, noiz egin diren eta zeintzuk egin dituzten adierazita.

Gipuzkoako Foru Aldundian gaia dela-eta eskudun den Departamentua jarduera horien exekuzioa gainbegiratzearaz arduratuko da. Era berean, ziurtagiri bat egingo du ekarpena egin duen entitatearen eta entitate onuradunaren identifikazio datuak jasoz eta ekarpenaren zenbateko eta data adieraziz. Horrez gainera, ziurtagiri horretan egiaztatuko da kopuru kenkaridunak jaso dituzten jarduerak lehentasunezkotzat hartutako jardueren artean daudela eta exigitutako beharkizunak bete dituztela. Horren ondoren, ziurtagiria Fiskalitaterako eta Finantzeturako Departamentuari igorriko dio bidezko diren zerga ondorioetarako.

2. Jarduera horiek pertsona fisiko berak edo entitate berak egiten dituenean, Gipuzkoako Foru Aldundian gaia dela-eta eskudun den Departamentuari jarduera horietara zuzendutako kopuruen zenbateko frogatuko zaio.

Gipuzkoako Foru Aldundian gaia dela-eta eskudun den Departamentua jarduera horien exekuzioa gainbegiratzearaz arduratuko da, eta ziurtagiri bat egin beharko du adierazita utziz zein kantitate erabili den lehentasunezkotzat hartutako jarduerarako. Horrez gainera, ziurtagirian egiaztatuko da kopuru kenkaridunak jaso dituzten jarduerak lehentasunezkotzat hartu-

2. Para que proceda la deducción de tales cantidades, las entidades o personas interesadas deberán comunicar por escrito al Departamento para la Fiscalidad y las Finanzas, la realización de dichas actividades de interés general, el importe del gasto, así como una memoria en la que se describa y justifique la contribución a dichos fines.

La comunicación se efectuará antes del cierre del ejercicio en el que proceda la deducción del gasto.

3. Los ingresos obtenidos en la actividad para la cual se ha incurrido en el gasto, se integrarán en la base imponible del sujeto pasivo.

4. Las deducciones previstas serán incompatibles, para un mismo concepto, con los incentivos fiscales a la inversión y bonificaciones en la cuota del Impuesto sobre Sociedades correspondientes, en su caso, a las mismas actividades.

5. La actuación administrativa previa no excluye la comprobación posterior por los órganos competentes de la Administración Tributaria de la realidad del gasto y de su efectiva adecuación a los fines mencionados, para lo cual se solicitará informe del Departamento correspondiente de la Administración competente por razón de la materia.

#### CAPITULO IV

##### ACTIVIDADES PRIORITARIAS DE MECENAZGO

*Articulo 8. Obligación de informar sobre la ejecución de las actividades declaradas prioritarias.*

1. Las personas físicas y entidades que reciban aportaciones para desarrollar actividades declaradas prioritarias por la Diputación Foral de Gipuzkoa, vendrán obligadas a remitir, al Departamento competente por razón de la actividad realizada y dentro de los dos meses siguientes a la finalización del ejercicio al que la correspondiente normativa se refiera, una memoria de las actividades financiadas en el ejercicio con cargo a dichas aportaciones, así como una relación de las aportaciones recibidas, indicando la cuantía de cada una de ellas, las fechas en las que se han realizado y los datos identificativos de los aportantes.

El Departamento competente por razón de la materia de la Diputación Foral de Gipuzkoa, que supervisará la ejecución de dichas actividades, expedirá certificación en la que, además de constar los datos identificativos tanto de la entidad aportante como de la entidad beneficiada, así como la cuantía y la fecha de la aportación, se acredite que las actividades a que se han destinado las cantidades objeto de deducción se encuentran entre las declaradas prioritarias para dicho ejercicio y que dichas actividades han cumplido los requisitos exigidos, procediendo a remitir el citado certificado al Departamento para la Fiscalidad y las Finanzas a los efectos fiscales oportunos.

2. Cuando sea la misma persona física o entidad la que realice dichas actividades, se deberá acreditar ante el Departamento competente por razón de la materia de la Diputación Foral de Gipuzkoa, la cuantía de las cantidades destinadas a dichas actividades.

El Departamento competente por razón de la materia de la Diputación Foral de Gipuzkoa, que supervisará la ejecución de dichas actividades, expedirá certificación en la que conste la cantidad destinada a las actividades declaradas prioritarias, y se acredite que las actividades a que se han destinado las cantidades objeto de deducción se encuentran entre las declaradas prio-

tako jardueren artean daudela eta exijitutako beharkizunak bete dituztela. Istorren ondoren, ziurtagiria Fiskalitaterako eta Finanzetarako Departamentuari igorriko dio bidezko diren zerga ondorioetarako Horretarako, jarduera horiek egin dituen pertsona fisikoari edo entitateari bidezko jotzen duen dokumentazioa eskatu ahal izango dio.

## V. KAPITULUA

### APARTEKO INTERES PUBLIKOA DUTEN GERTAKARIEI LAGUNTZEKO PROGRAMETAN AURREIKUSI DIREN ZERGA ONURAK APLIKATZEKO PROZEDURA

#### *9. artikulua. Edukia eta aplikazio eremua.*

1. Aparteko interes publikoa duten gertakariei laguntzeko programetan aurreikusita dauden zerga onurak aplikatzeko prozedura 3/2004 Foru Arauaren 30. artikuluan aipatzen den foru dekretuak arautuko du.

2. Zerga Administrazioak egiaztu ahal izango du kapitulo honetan aipatzen diren zerga onurak aplikatzeko baldintzak betetzen direla, eta, behar izanez gero, bidezko den erregularizazioa ere egin ahal izango du.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehena. Eliza Katolikoa eta bestelako eliza, konfesio eta komunitate erlijiosoa: Zerga erregimen berezia aplikatzea eta atxikitzeo edo kontura sartzeko obligazioaren salbuespena egiaztatzea.*

1. 3/2004 Foru Arauak zazpigarren xedapen gehigarriaren 1 apartatuan aipatzen dituen entitateek foru arau bereko 7tik 17ra bitarteko artikuluetan ezarritako zerga erregimen berezia aplikatzea aukeratzen badute, ez dute edukiko zertan egin foru dekretu honen 1. eta 2. artikuluetan araututako komunikazioak. Aitorpena edo autoliquidazioa egin beharra dakarten tributuak direnean, zerga erregimen hori subjektu pasiboak berak aplikatuko du, eta gainerako kasuetan zerga Administrazioak.

Atxikitzeo edo kontura sartzeko obligazioaren salbuespena, 3/2004 Foru Arauaren 14. artikuluan aipatua, entitate horiei aplikagarri zaiela egiazatzeko, Fiskalitaterako eta Finanzetarako Departamentuko organo eskudunak interesatuaren eskariz egindako ziurtagiria aurkeztu beharko da. Ziurtagiriak indarraldi mugagabea izango du eta bertan frogatuko da entitatea aipatutako xedapen gehigarriaren 1 apartatuan sartzen dela. Eskaera egitean entitatearen nortasuna eta izaera egiaztatuko dira Justizia Ministerioaren Entitate Erlujosoen Erregistroak inskripzioari buruz emandako ziurtagiria aurkeztuz.

2. 3/2004 Foru Arauak seigarren xedapen gehigarrian eta zazpigarren xedapen gehigarriaren 2 apartatuan aipatzen dituen entitateei foru dekretu honen 1., 2. eta 4. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko zaie bai zerga erregimen bereziaren aplikazioa aukeratzeari eta bai atxikitzeo edo kontura sartzeko obligazioaren salbuespena egiaztatzeari dagokienez.

ritarias para dicho ejercicio y que dichas actividades han cumplido los requisitos exigidos, procediendo a remitir el citado certificado al Departamento para la Fiscalidad y las Finanzas a los efectos fiscales oportunos. A tales efectos podrá requerir de la persona física o entidad que haya realizado dichas actividades la documentación que considere oportuna.

## CAPITULO V

### PROCEDIMIENTO PARA LA APLICACION DE LOS BENEFICIOS FISCALES PREVISTOS EN LOS PROGRAMAS DE APOYO A ACONTECIMIENTOS DE EXCEPCIONAL INTERES PUBLICO

#### *Articulo 9. Contenido y ámbito de aplicación.*

1. El Decreto Foral al que se refiere el artículo 30 de la Norma Foral 3/2004 regulará, en todo caso, el procedimiento necesario para la aplicación de los beneficios fiscales previstos en los programas de apoyo a acontecimientos de excepcional interés público.

2. La Administración Tributaria podrá comprobar el cumplimiento de los requisitos necesarios para la aplicación de los beneficios fiscales a que se refiere este capítulo y practicar, en su caso, la regularización que resulte procedente.

## DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera. La Iglesia Católica y otras iglesias, confesiones y comunidades religiosas: Aplicación del régimen fiscal especial y acreditación a efectos de la exclusión de la obligación de retener o ingresar a cuenta.*

1. Las entidades a las que se refiere el apartado 1 de la Disposición Adicional Séptima de la Norma Foral 3/2004 que decidan aplicar el régimen fiscal especial previsto en los artículos 7 a 17 de dicha Norma Foral no tendrán que efectuar las comunicaciones reguladas en los artículos 1 y 2 de este Decreto Foral. Dicho régimen fiscal se aplicará directamente por el sujeto pasivo cuando se trate de tributos objeto de declaración o autoliquidación, y por la Administración Tributaria en los demás casos.

La acreditación de estas entidades a efectos de la exclusión de la obligación de retener o ingresar a cuenta a que se refiere el artículo 14 de la Norma Foral 3/2004 se efectuará mediante certificado expedido, a petición de la entidad interesada y con vigencia indefinida, por el órgano competente del Departamento para la Fiscalidad y las Finanzas, en el que se acredite que la entidad está incluida en el apartado 1 de la citada disposición adicional. En la solicitud deberá acreditarse la personalidad y naturaleza de la entidad mediante la certificación de su inscripción emitida por el Registro de Entidades Religiosas del Ministerio de Justicia.

2. A las entidades a las que se refieren la Disposición Adicional Sexta y el apartado 2 de la Disposición Adicional Séptima de la Norma Foral 3/2004 les será de aplicación lo dispuesto en los artículos 1, 2 y 4 de este Decreto Foral a efectos del ejercicio de la opción por el régimen fiscal especial y de la acreditación del derecho a la exclusión de la obligación de retener o ingresar a cuenta.

*Bigarrena. Abenduaren 21eko 117/1999 Foru Dekretua, pertsona eta entitate jakin batzuek zerga Administrazioari informazioa emateko betebeharri buruzko xedapen batzuk garatzen dituena, aldatzea.*

Abenduaren 21eko 117/1999 Foru Dekretuaren 43. artikulu honela geratu da idatzita:

«43. artikula. Informatzera behartutako subjektuak eta eman beharreko datuak.

Apirlaren 7ko 372004 Foru Arauaren 25.2 artikuluan eta Pertsona Fisikoaren Errrentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauaren 107.2.d) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, entitate onuradunak urte natural bakoitzean jasotako emaitza, dohaintza eta ekarpenean kengarriengatik egindako ziurtagiriei buruzko aitorpen informatiboa bidaliko dio zerga Administrazioari. Aitorpen horretan, bere identifikazio datuak agertzeaz gainera, dohaintza-emaileen eta ekarpeneen honako informazioa ere adieraziko du:

- a) Izen-abizenak edo sozietate izena.
- b) Identifikazio fiskaleko zenbakia.
- c) Dohaintzaren edo ekarpenearen zenbatekoa. Jenerotan egiten bada, dohaintzan emandakoaren edo ekarpenearen balorazioa adieraziko da.
- d) Dohaintza edo ekarpenea lehentasunezko mezenasgo-jardueretarako jasotzen den adieraziko da.
- e) Urte naturalean errebatu diren dohaintza eta ekarpenei buruzko informazioa, halakorik gertatu bada.

#### *Xedapen Iragankorra. Udal Zergak itzultzea.*

Udal zergak ordaintzean zerga erregimen berezia aplikatzeko eskubidea duten subjektu pasiboek 2004ko urtarrilaren 1etik 2004ko apirlaren 20ra bitartean sortutako zorrak ordainduak badituzte, ordaindutako kopuruuen itzulketarako eskubidea izango dute.

#### *Xedapen Indargabetzailea.*

Foru dekretu honetan ezarritakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak indarrik gabe geratzen dira. Bereziki, indarrik gabe geratzen da abenduaren 27ko 121/1995 Foru Dekretua, ekimen pribatuari interes orokorreko jardueretan parte hartzeagatik zerga-pizgarriak emateko errege-lamendua onartzen duena.

#### *Amaierako Xedapena.*

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Donostia, 2004ko azaroaren 2a.

DIPUTATU NAGUSIA,  
Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Miranda.

FISKALITATERAKO ETA FINANTZETARAKO

DEPARTAMENTUKO

FORU DIPUTATUA,

Juan Jose Mujika Aginagalde.

(10258)

*Segunda. Modificación del Decreto Foral 117/1999, de 21 de diciembre, por el que se desarrollan diversas disposiciones que establecen obligaciones de suministro de información a la Administración Tributaria en relación con determinadas personas y entidades.*

El artículo 43 del Decreto Foral 117/1999, de 21 de diciembre, queda redactado de la siguiente manera:

«Artículo 43. Sujetos obligados y objeto de la información.

A efectos de lo dispuesto en el artículo 25.2 de la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, y en el artículo 107.2.d) de la Norma Foral 8/1998, de 24 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, la entidad beneficiaria deberá remitir a la Administración Tributaria una declaración informativa sobre las certificaciones emitidas de los donativos, donaciones y aportaciones deducibles percibidos durante cada año natural, en la que, además de sus datos de identificación, deberá constar la siguiente información referida a los donantes y aportantes:

- a) Nombre y apellidos, razón o denominación social.
- b) Número de identificación fiscal.
- c) Importe del donativo o aportación. En caso de que estos sean en especie, valoración de lo donado o aportado.
- d) Referencia a si el donativo o la aportación se perciben para las actividades prioritarias de mecenazgo.
- e) Información sobre las revocaciones de donativos y aportaciones que, en su caso, se hayan producido en el año natural.

#### *Disposición Transitoria. Devolución de Tributos Locales.*

Los sujetos pasivos que, teniendo derecho a la aplicación del régimen fiscal especial en relación con los tributos locales, hubieran satisfecho las deudas correspondientes a devengos producidos entre el 1 de enero de 2004 y el 20 de abril de 2004 tendrán derecho a la devolución de las cantidades ingresadas.

#### *Disposición Derogatoria.*

Quedan derogadas cuantas disposiciones del mismo o inferior rango se opongan a lo dispuesto en este Decreto Foral. En particular, queda derogado el Decreto Foral 121/1995, de 27 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de Incentivos Fiscales a la participación privada en actividades de interés general.

#### *Disposición Final.*

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Donostia-San Sebastián, a 2 de noviembre de 2004.

EL DIPUTADO GENERAL,  
Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Miranda.

EL DIPUTADO FORAL  
DEL DEPARTAMENTO PARA LA  
FISCALIDAD Y LAS FINANZAS,  
Juan Jose Mujika Aginagalde.

(10258)